Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2023ko irailaren 21a, osteguna — 183 — Jueves, a 21 de septiembre de 2023

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## DONOSTIAKO UDALA

### Pertsonen Kudeaketa

*Iragarkia*

Tokiko Gobernu Batzarrak 2023ko irailaren 19an honako erabaki hauek hartu zituen:

«Udalbatzak, 2008ko apirilaren 4ko bilkuran, Donostiako Gobernuaren eta Administrazioaren Organo Araudia onartu zuen.

Araudi horretako I. Tituluko 4. artikuluak arautzen du Udalaren antolamendu egitura administratiboa. Egitura honek funtzionalki zuzendaritzatan antolatuta dago eta araudi horretako 7. artikuluan xedatuta dago Alkateari dagokiola udal antolakuntza eta egitura exekutiboa.

Era berean, araudi horretako 3. idatz zatian araututa daude zuzendaritza organoak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzeko Legean eta Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bateginean ezarritakoari jarraituz. Araudi horretako 34. artikuluan xedatuta dago alkateari dagokiola, Aurrekontuko I. kapitulurako ezarritako mugen barruan, zuzendaritza organoen kopurua eta izena zehaztea.

Orobat, araudiko 38. artikuluan xedatuta dago Udaleko zuzendaritza organoak direla alkateak administrazio betearazlearen antolakuntza eta egitura ezartzean zehaztu dituen eta administrazio antolakuntzako buru diren zuzendariak eta arloko koordinatzaileak.

Beste aldetik, Euskal Enplegu Publikoari buruzko 11/2022 Legeak zuzendaritza publiko profesionala arautzen du 31. artikuluan eta hurrengoetan, eta haren betekizunak, izendatzeko prozedura eta araubide juridikoa ezartzen ditu.

Donostiako Udaleko zuzendaritza-organoetako lanpostuen zerrendak Pertsonak Kudeatzeko zuzendariaren lanpostua jasotzen du, zeina bete egin behar baita, egungo titularra laster erretiratuko delako.

Pertsonak, Ekonomia eta Aurrekontua Kudeatzeko zinegotzi ordezkariak Pertsonak Kudeatzeko zuzendaria zuzendaritza organoaren zereginak behar bezala betetzeko behar diren gaitasun profesional espezifikoak aldatzea proposatu du, eta baita zuzendaritza organo hori izendatzeko deialdia egitea ere.

Udalbatzak, 2023ko uztailaren 27an, Pertsonak Kudeatzeko zuzendaritza organoari dagokionez funtzionario edo enplegatu publiko izateko betebeharretik salbuestea erabaki zuen, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 37.2 artikuluan xedatutakoa aplikatuz.

Euskal Enplegu Publikoari buruzko 11/2022 Legearen 34.2 artikuluaren arabera, egoera hori eguneratu behar da zuzendaritza-lanpostuak antolatzeko tresnetan.

Aurrekoa ikusita, horiek eguneratu egin behar dira, lanpostuaren monografiaren araberako eskakizun berriak ezarriz, 11/2022 Legearen 34. artikulua, erantsitako I. dokumentuaren arabera.

## AYUNTAMIENTO DE SAN SEBASTIÁN

### Gestión de Personas

*Anuncio*

La Junta de Gobierno Local, con fecha 19 de septiembre de 2023 acordó lo siguiente:

«Con fecha 4 de abril de 2008 el Excmo. Ayuntamiento Pleno aprobó el Reglamento Orgánico del Gobierno y la Administración de San Sebastián.

Dicho Reglamento establece en su Título I, art. 4, que con carácter general la organización administrativa del Ayuntamiento se organiza funcionalmente en Direcciones, disponiendo en su art. 7 que corresponde al Alcalde establecer la organización y estructura de la Administración municipal ejecutiva.

Igualmente, dicho Reglamento establece en su Título IV, sección 3.ª la regulación de los órganos directivos, de conformidad con lo previsto en la Ley de Bases de Régimen Local y el Texto Refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleado Público, disponiendo en su artículo 34 que corresponde al Alcalde, dentro de los límites presupuestarios establecidos para el Capítulo I del Presupuesto, determinar el número y denominación de los órganos directivos.

Asimismo, el artículo 38 del Reglamento dispone que son órganos directivos municipales los y las Coordinadores/as de Área y los y las Directores/as que, culminando la organización administrativa, determine el Alcalde en el establecimiento de la organización y estructura de la administración ejecutiva.

Por su parte, la Ley 11/2022 de Empleo Público Vasco regula en sus artículos 31 y siguientes la dirección pública profesional, estableciendo sus requisitos, procedimiento de designación y régimen jurídico.

La relación de puestos de trabajo de órganos directivos del Ayuntamiento de San Sebastián incluye el puesto de Director/a de Gestión de Personas, que es necesario cubrir debido a la próxima jubilación de su actual titular.

El concejal delegado de Personas, Gestión Económica y presupuestaria, ha puesto de manifiesto la necesidad de modificar las competencias profesionales específicas requeridas para el correcto desempeño de las tareas del órgano directivo director/a de Gestión de Personas, al tiempo que ha propuesto efectuar convocatoria para el nombramiento de dicho órgano directivo.

El Ayuntamiento Pleno, con fecha 27 de julio de 2023 aprobó determinar la exclusión de la obligación de reunir la condición de funcionario/a o de empleado/a público respecto del órgano directivo de Director/a de Gestión de Personas, en aplicación de lo dispuesto en el artículo 37.2 de la Ley 2/2016 de 7 de abril de Instituciones Locales de Euskadi.

En base al art. 34.2 de la Ley 11/2022 de Empleo Público Vasco se ha procedido a actualizar dicha circunstancia en los instrumentos de ordenación de los puestos de trabajo de naturaleza directiva.

A la vista de lo anterior, procede su actualización estableciendo nuevos requisitos según la monografía del puesto, de conformidad con lo establecido en el artículo 34.2 de la Ley 11/2022, según el documento anexo I.



EK\CV GAO-I-2023-06887

Era berean, hautaketa-prozesuaren deialdia arautuko duten oinarriak prestatu dira, erantsitako II. dokumentuaren arabera.

Horiek guztiak horrela direla, honako erabaki hauek hartzea proposatzen diogu Gobernu Batzarrari:

ERABAKIAK

1. Pertsonak Kudeatzeko Zuzendaria zuzendaritza organoaren titularra izendatzeko deialdia onartzea, dokumentu honi atxikitako II. eranskinaren arabera.

2. Dagokien Aldizkari Ofizialetan argitaratzea aurreko ataletan xedatutakoaren edukia.»

Erabaki hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesatuek Administrazioarekiko Auzi Errekurtsoa aurkez dezakete zuzenean Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegian, argitaratu eta hurrengo egunetik hasi eta bi hilabete baino lehen.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik Berraztertzeko Hautazko Errekurtsoa aurkezteko Gobernu Batzarrari, argitaratu eta hurrengo egunetik hasi eta hilabete baino lehen. Hori eginez gero, ez dago administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkezterik harik eta berraztertzekoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena izan arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

Donostia, 2023ko irailaren 19a.—Maribel Iñiguez Azurmendi, Pertsonen Kudeaketako zuzendaria. (6887)

II. ERANSKINA

*Pertsonak Kudeatzeko zuzendaria zuzendaritza organorako langilea hautatzeko deialdia.*

*Lehenengoa.* Deialdi honen helburua da Pertsonak Kudeatzeko zuzendaria zuzendaritza organoa izendatzea.

Hauek izango dira haren eginkizunak, Tokiko Gobernu Batzarrak onartutako lanpostuaren monografiaren arabera:

a) Bere eskumeneko zerbitzua zuzentzea eta kudeatzea, eta bere mende dauden langileei helburuak ezartzea.

b) Organo horri atxikitako unitate organikoak, zuzenean bere mende daudenak, zuzentzea eta koordinatzea, bai eta unitate horiei atxikitako langileak ere.

c) Bere zeregin eremuko gaiei buruzko xedapen, akordio eta hitzarmen proiektuak egitea.

d) Esleitu zaion urteko aurrekontua egitea, kudeatzea, haren jarraipena egitea eta kontrolatzea.

e) Bere eskumeneko zerbitzuak ebaluatzea, hainbat adierazle dituzten helburuen bidez. Adierazle horiei esker, zerbitzu horiek ebaluatu eta horien gauzapen maila neurtu ahal izango da.

f) Gainerako udal organoek haien esku uzten dutenak.

Parte hartzeko ez da beharrezkoa izango enplegatu publiko izatea.

Lanpostuaren izaerak, ordea, Lizentzia, Goi Mailako Titulazioa edo Gradua eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuan definitutako C1 mailako euskararen ezagutza izatea eskatzen du.

Hauek dira eskatzen diren konpetentzia profesional espezifikoak:

Erantzukizuneko lanpostuak betetzen gutxienez bi urteko esperientzia izan beharko dute arlo hauetakoren batean:

a) Zuzendaritza-eginkizunak.

b) Pertsonen kudeaketa.

c) Baliabide ekonomikoen kudeaketa.

Asimismo, se han elaborado las bases que han de regir la convocatoria del proceso selectivo, de conformidad con el documento anexo II.

A la vista de cuanto antecede, se propone a la Junta de Gobierno Local la adopción de los siguientes:

ACUERDOS

1. Aprobar la convocatoria de conformidad con el anexo II para la selección de personal que permita nombrar titular del órgano directivo Director/a de Gestión de Personas.

2. Publicar en los Boletines Oficiales que proceda el contenido de lo dispuesto en los apartados anteriores.»

Este acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra él, Recurso Contencioso-Administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.

No obstante, las personas particulares, con carácter previo, podrán interponer Recurso potestativo de reposición ante la Junta de Gobierno Local, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

San Sebastián, a 19 de septiembre de 2023.—La directora de Gestión de Personas, Maribel Iñiguez Azurmendi. (6887)

ANEXO II

*Convocatoria de selección de personal para el órgano directivo director/a de Gestión de Personas.*

*Primero.* Es objeto de la presente convocatoria el nombramiento del órgano directivo director/a de Gestión de Personas.

Las funciones a desempeñar serán las siguientes, según la Monografía del puesto aprobada por la Junta de Gobierno Local:

a) La dirección y gestión de los servicios de su competencia, asignando objetivos a quienes dependen de él/ ella.

b) La dirección y coordinación de las unidades orgánicas adscritas a la misma, cuya jefatura inmediata ostenta, así como del personal adscrito a las mismas.

c) La elaboración de proyectos de disposiciones, acuerdos y convenios respecto de las materias de su ámbito de funciones.

d) La elaboración, gestión, seguimiento y control del presupuesto anual que se le asigne.

e) La evaluación de los servicios de su competencia, mediante objetivos que contemplen indicadores que permitirán realizar la valoración y el grado de ejecución de los mismos.

f) Las que le deleguen los demás órganos municipales.

Para participar no será necesario tener la condición de persona empleada pública.

Sin embargo, la naturaleza del puesto requiere encontrarse en posesión de titulación de Licenciatura, Titulación Superior o Grado y conocimientos de euskera de nivel C1 definido en el Marco Común Europeo de referencia para las Lenguas.

Las competencias profesionales específicas exigidas son las siguientes:

Deberán contar con una experiencia mínima de dos años en el desempeño de puestos de responsabilidad en alguno de estos ámbitos y/o funciones:

a) Funciones directivas.

b) Gestión de personas.

c) Gestión de recursos económicos.


EK\CV GAO-I-2023-06887

d) Baliabide teknologikoen kudeaketa.

Izendatzen den pertsonak Pertsonak kudeatzeko Zuzendaria zuzendaritza organorako ezarritako ordainsariak jasoko ditu. Ordainsari horiek, gaur egun, 30. destino osagarriaren maila eta 87.405,20 euro urteko.

*Bigarrena.* Interesa duten pertsonek alkateari zuzenduko diote eskaria, honekin batera doan eskabide ereduaren bitartez. Hamabost laneguneko epearen barruan egingo da eskaria, deialdiaren iragarkia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ondoko egunetik aurrera. Eskaerak, behar bezala beteta, Donostiako Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztu behar dira, edo, bestela, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritako moduren batean.

*Hirugarrena.* Deialdi honetan parte hartu nahi duten izangaiek curriculum vitaea aurkeztu behar dute eskaera orriarekin batera. Curriculumean datu hauek jaso behar dira:

— Titulu akademikoak.

— Lanbide esperientzia, baldintza gisa ezarritako gutxieneko esperientziari aipamen berezia eginez eta betetako lanpostuak.

— Ikasketak, ikastaroak, txostenak, argitalpenak eta egoki iritzitako beste merezimendu batzuk.

— Euskara ezagutzak.

Izangaiek betekizunak eta alegatutako merezimenduak egiaztatu beharko dituzte, jatorrizko dokumentuak nahiz benetako kopiak aurkeztuz.

*Laugarrena.* Deialdia Gobernu Batzarraren izendapenaren bitartez ebatziko da eta izendapena Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko da.

Zuzendaritza eginkizunak direla kontuan hartuta, Gobernu Batzarrak merezimendu, gaitasun eta objektibotasun printzipioak nahiz egokitasun irizpideak aintzat hartuta erabakiko du zer izangai hautatu, eta, horretarako, izangaiak balioesteko bidezkotzat jotzen dituen bitartekoak erabili ahal izango ditu.

*Bosgarrena.* Deialdi hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta Udalaren www.donostia.eus webgunean argitaratuko da, «Lan eskaintza» atalaren barruan.

*Seigarrena.* Deialdi honen aurka edo administrazio bidea amaitzen duten administrazio egintzen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa jar dakioke egintza eman zuen organoari berari, edo zuzenean aurkaratu daitezke administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen, 112. artikuluan eta hurrengo artikuluetan ezarritakoarekin bat.

d) Gestión de recursos tecnológicos.

La persona nombrada percibirá las retribuciones correspondientes a la retribución fijada para el órgano directivo Director/a de Gestión de Personas y que en la actualidad suponen complemento de destino nivel 30 y retribución total de 87.405,20 euros/año.

*Segundo.* Las personas interesadas dirigirán su solicitud al Ilmo. Sr. Alcalde, en instancia según modelo que se adjunta, dentro del plazo de quince días hábiles, contados desde el siguiente a la publicación del anuncio de esta convocatoria en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa. Las instancias se presentarán debidamente cumplimentadas en el Registro General del Ayuntamiento de San Sebastián o en las formas previstas en el artículo 16.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo.

*Tercero.* Los/as aspirantes que deseen tomar parte en la presente convocatoria acompañarán a la solicitud el curriculum vitae, en el que deberá figurar:

— Títulos académicos.

— Experiencia profesional, con especial referencia a la experiencia mínima establecida como requisito y puestos desempeñados.

— Estudios, cursos, ponencias, publicaciones y cuantos otros méritos estimen oportuno manifestar.

— Conocimientos de Euskera.

Los/as aspirantes deberán adjuntar la documentación acreditativa, mediante originales o copias auténticas, de los requisitos exigidos así como de los méritos alegados.

*Cuarto.* La resolución de la presente convocatoria se realizará mediante nombramiento de la Junta de Gobierno Local, que será publicado en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

En atención a la naturaleza de las funciones directivas, la Junta de Gobierno Local decidirá libremente, en base a los principios de mérito y capacidad y objetividad y a criterios de idoneidad de los/las candidatos/as, pudiendo utilizar los medios que estime oportunos para la valoración de los/las candidatos/as.

*Quinto.* Esta convocatoria se publicará en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y en la página web del Ayuntamiento www.donostia.eus dentro del apartado «Oferta de Empleo».

*Sexto.* La presente convocatoria y los actos administrativos que se deriven de la misma y que pongan fin a la vía administrativa podrán, potestativamente, ser recurridos por los/as interesados/as en reposición ante el órgano que los hubiera dictado o ser impugnados directamente ante el orden jurisdiccional contencioso-administrativo, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 112 y siguientes de la Ley 39/2015 de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

EK\CV GAO-I-2023-06887